

2024 ekitaldiko "Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko dirulaguntza programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak

### **1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)**

8.1 Entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz espezifikoen ezartzen direnak ere.

8.2 Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruetan 2018-2022 aldirako onesten duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3 Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4 Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaketari publikitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6 Zabalkunde publikoko edozein ekitaldi egin aurretik (transferentzia- eta hedapen-tailerrak egitea barne) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiari horren berri emango zaio, eta bertan parte hartzeko gonbida bidaliko da. Entitate onuradunak ekitaldi horien berri ez emateak ekar dezake emandako dirulaguntzaren %10 itzularaztea, eta errepikatuz gero, dirulaguntza osoa.

8.7 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.8 Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, entitate onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.9 Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

### **2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. Eranskina 9. oinarria.)**

Entitate onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

### **3.- Dirulaguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)**

11.1 Dirulaguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.



11.2 Hala eta guztiz ere, aurreiazko ordainketak egin ahal izango dira, berme beharrik gabe, dirulaguntza jaso duten jarduerak gauzatzeko ezinbesteko finantzaketa gisa, entitate onuradunak alde aurretik eskatuta, eta beharrezana justifikatuta, alderdi hauek kontuan harturik: alde batetik, programaren xedea, hau da, pertsonen, enpresen, ikaskuntza entitateen, gizartearen eta lurraldearen konpromisoa lerrokatzen dituen ekosistema elkarlotu batean eredu sozioekonomikoa eredu jasangarri baterantz eralda dadin sustatzea, kohesio sozial eta ekologiko handiagoa sustatze aldera, zeren eta programaren izaera eraldatzaileak eta esperimentalak –zeharkako emaitzetakoa, oinarrituta balio ukiezin batzuetan, zeintzuk zailak baitira epe erdian edo epe luzean zenbatzen eta egiaztatzen, eta eragina baitute pertsonengan eta lurraldean– zaildu egiten baitu finantzaketa/baliabide propioak esleitzea enpresak garatzeko (ekimen horiek, orobat, gauzatzeko aldi luzeak dituzte, eta horrek berekin dakar bai finantzaketa-eskuragarritasuna behar izatea programa gauzatzeko bukatu aurretik, bideragarri egin dezan programa garatzea, bai, beraz, funtsez hornitu behar izatea, horiei esker hasi ahal izateko diruz lagundutako proiektuak); eta bestetik, horrez gain, kasu batzuetan, entitate onuradunen tipologia, irabazi-asmorik gabeak izaten baitira, finantza-zailtasunak dituztenak dirulaguntzaren xedeak garatzeko. Bada, hori guztia eta aurreko esperientzietan proiektuak gauzatu diren modua kontuan harturik egin ahal izango dira aurreiazko ordainketak. Aurrerakin horiek emakidarekin batera ordaindu ahal izango dira, baldin eta aurrekontu baliabideak badaude, eta emandako dirulaguntza osoaren % 85 gainditzen ez badute, proiektua hasten denetik aurrera, eta behar bezala justifikatu beharko da hori (ikus: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/trantsizio-ekologiko-jasangarria-eta-bidezkoa/enpresak>)

11.3 Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena %3 gehituta.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz edo entitate eskatzaileak egiaztapen horren aurka egingo balu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

#### **4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 12. oinarria)**

12.1 Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtzarik gabe lotuta daudenean.

12.2 Diruz lagungarriak izango diren kostuak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

12.3 Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango 300 eurotik beherako kostuak.

12.4 Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsonen edo entitateen dagozkienak, salbuespen hauekin:

- Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean; eta

- Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arautzaile espezifikoetan adierazitako moduan.

12.5 Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, eskumena egotea, eta, merkatuko balioa inoiz ere gainditu gabe.

(\*)- Onartuak izateko, ordainketa guztiek abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan ezarritako epeak bete behar dituzte. Lege horrek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen ditu.

## 5.- Dirulaguntza zuritzea. (I. eranskina 13 oinarria.)

13.1 Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du entitate onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2 Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

13.3 Aurreko paragrafoan aipatutako epearen barruan entitate onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

- Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzekoan sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

- Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

- Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira.
- Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga ballokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

(\*)- Onartuak izateko, ordainketa guztiek abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan ezarritako epeak bete behar dituzte. Lege horrek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen ditu.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.
- Nominak eta 190 ereduak, eta/edo Langileen Zerrenda Nominala-RNT barruko langile gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen eta/edo bazkide kooperatibisten kasuan, RNT beharrean, dagokion Gizarte Segurantzaren edo antzeko entitatearen ziurtagiria.
- Orduen txostenak, entitate eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta.
- Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo horiek gorako kostu subentzisionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkaturan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

Aurkezten diren eskaintzak dirulaguntzaren justifikazioan edo, kasua bada, eta hautaketa egiteko eragimena eta ekonomia izango dira aplikatuko diren irizpideak. Proposamen ekonomikorik merkeena aukeratzeko ez denean, erabakia berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

- Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4 Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.5 Dirulaguntza zuritzeko ezarrita dagoen epea oinarri honetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe igarotzen bada, eskudun den organoak 15 eguneko epea emango dio entitate onuradunari dokumentazio hori aurkezteko. Epe gehigarri hori zurigarriak aurkeztu gabe igarotzen bada, 15. oinarrian aurreikusten diren ondorioak aplikatuko dira.

13.6 Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez dirulaguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiria. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen

den une berean hasiko da kontaktzen epe hori.

13.7 Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza doitu egingo da. Dirulaguntza zurrizko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo dirulaguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

#### **6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 14. oinarria.)**

14.1 Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino hilabete 1 aurretik, onuradunek eskatu ahal izango diote organo emaileari dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoiak ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2 Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, entitate interesdunari aurrez entzunda eta funtsak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

14.3 Entitate onuradunak, dirulaguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeko, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten; dena den, horrek ez du onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

#### **7.- Proiektuak gauzatzeko data.**

Erakunde onuradunek **2025eko EKAINAREN 30erako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

#### **INFORMAZIO GEHIAGO**

- Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programaren 2024ko deialdia. (2024/05/21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen - 2024/05/30eko GAO 1040 zk.).
- Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programako dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak aldatzea eta 2023ko deialdia (Diputatuen kontseiluaren 2023/02/21eko akordio baten bidez aldatu, 2023/03/03 GAO 43 zk.).
- Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programaren oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia. (2022/11/15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen -2022/11/21eko GAO 220 zk.).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (GAO. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (GAO. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.)